



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 15a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Departamentua zein Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premia-tzen dira batera lan egin dezaten, Irakasletza graduan Nafarroako euskalkien inguruko aukerazko iraka-sgai bat sortzearen alde. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak jardue-rak antola ditzan gazteekin 2021. eta 2022. urteetan –Donejakue urteak baitira– Donejakue Bidea ezaguta-razteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Kirolaren Institutua premiatzen da estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusibora egokitu ditzan. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira koronabirusa-ren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultza ditzan jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzeta eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Bar-neko Batzordeak ezetsi du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errepideetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan. Lurralde Kohesiorako Batzordeak ezetsi du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak lan-hitzarmen justu bat babesten baitu garbiketako langileentzat. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, amiantoaren kartzeko Plan Zuzendariari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).

- Galdera, hezkidetzaren printzipioa betetzeari eta ikasleak sexuaren arabera ez bereizteari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Audenasa konpentsatzeko formularen erabilitako “C” koefizientearen balio-aldaketari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, zahar-etxeetako zaintzari eta erizaintzako osasun-laguntzari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (9. or.).
- Galdera, nekazaritzako ustiategietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen deialdiei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, sektore-eremuen gaineko eskumenari buruzkoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuetan. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari eta horien edukiari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturako eraikin berria egiteari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (12. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (12. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 3/2021 Foru Lege-dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez ezartzen baita denbora-egozpena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteengatik jasotako prestazioen erregularizazioari dagokiona, eta aldatzen baita ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bategina (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Departamentua zein Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten, Irakasletza graduan Nafarroako euskalkien inguruko aukerazko irakasgai bat sortzearen alde.

UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak, 2021eko martxoaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Departamentua zein Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten, Irakasletza graduan Nafarroako euskalkien inguruko aukerazko irakasgai bat sortzearen alde”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Departamentua zein Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen ditu batera lan egin dezaten, Irakasletza graduan Nafarroako euskalkien inguruko aukerazko irakasgai bat sortzearen alde. Unibertsitateak bigarren aukerako irakasgai bat sortzen ahalko du (3+3 kreditu) eskariaren arabera”.

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak jarduerak antola ditzan gazteekin 2021. eta 2022. urteetan –Donejakue urteak baitira– Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko martxoaren 31n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak jarduerak antola ditzan gazteekin 2021. eta 2022. urteetan –Donejakue urteak baitira– Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gazteriaren Institutua premiatzen du:

- Bat egin dezan 2021-2022 Donejakue urtearen ospakizunarekin.

- Gazteekin jarduerak antola ditzan 2021. eta 2022. urteetan –Donejakue urteak baitira– Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.

- Donejakue Bideak zeharkatzen dituen autonomia erkidegoetako gazteen trukea susta dezan, Bidearen osotasuna egin dezaten.

- Genero- eta desgaitasun-ikuspegiak txerta ditzan Donejakue Bidean 2021. eta 2022. urteetan –Donejakue urteak baitira– gazteekin antolatuko diren ekintza eta jarduera ezberdinetan”.

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuo Kirolaren Institutua premiatzen da estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusibora egokitu ditzan.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2021eko martxoaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuo Kirolaren Institutua premiatzen da estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusibora egokitu ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kirolaren Institutuaren bidez kirol-federazioekin lankidetzan jardun eta babestu ditzan:

- Berdintasunaren aldeko egiazko konpromiso bat lortze aldera jokaturako partidetak aktetan,

halako moduan non emakumezko jokalariai femeninoz izendatuko baitira gaztelaniaz.

- Arbitroek –kirol-diziplinetako (futbola, eskubaloia, saskibaloia...) partidetak aktak idazteko ardura haiena baita– pertsona bat aipatzen dutenean haren generoa zehatz dezaten gaztelaniaz, hartara identifikatuta sentituko baitira emakumezkoen ekipoak eta taldeak, hizkera egokiena erabiliko baitute hartara.

- Estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusiboan idatzita egon daitezten.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du generoaren arloko prestakuntza eman diezaien arbitroei”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira koronabirusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko martxoaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira koronabirusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu:

1. Birusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten.

2. Zeharo gaitzets ditzaten gizalegearen aurkako portaerak nahiz portaera horiek sustatu dituzten jarrera negazionistak eta intoleranteak.

3. Pandemiaren irteera seguru eta eraginkorra Zientziaren eskutik ez beste inondik etorriko delako uste osoa dutela adieraz dezaten.

4. Herritarrei dei egin diezaieten izaten ari diren jokaera eredugarriarekin jarrai dezaten, COVID-19ari aurrea hartzeko oinarritzko gomen-dioak betez”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzen jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko martxoaren 31n egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzen jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak

legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko”. Mozioa Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errepideetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan.

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2021eko martxoaren 30ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errepideetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan”. Mozioa, Javier García Jiménez jaunak aurkeztu zuen eta

2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak lan-hitzarmen justu bat babesten baitu garbiketako langileentzat.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak lan-hitzarmen justu bat babesten du garbiketako langileentzat eta negoziazio kolektiboari berrekitea aldeztu du langile horiek pairatzen dituzten arazoei heldu eta konponbidea emateko eta prekarizazioarekin amaitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du garbiketaren sektorea funtsezkoa dela jarduera ekonomiko- en eta zerbitzuen funtzionamendu egokirako ematen duten zerbitzuagatik, eta langile horiek pandemiaren aurka eginiko ekarpena aitortzen du”. (10-21/DEC-00018).

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, amiantoa kentzeko Plan Zuzendariari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, amiantoa kentzeko Plan Zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroan amiantoa kentzeko Plan Zuzendariaren garapena?

Iruñean, 2021eko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, hezkidetzaren printzipioa betetzeari eta ikasleak sexuaren arabera ez bereizteari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasoa andreak aurkeztutako galdera, hezkidetzaren printzipioa betetzeari eta ikasleak sexuaren arabera ez bereizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elebidun Bakartxo Ruiz Jasoa andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegi jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Hezkuntza Departamentuak nola bermatuko du ikasleak sexuaren arabera ez bereiztearen eta hezkidetzaren printzipioa orain arte bete ez duten ikastetxeek, zeinei Lehen Hezkuntzako itunak sei urterako berritu baitzaizkie, legedia indarduna beteko dutela?

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasoa

Galdera, Audenasa konpentsatzeko formularen erabilitako “C” koefizientearen balio-aldaketari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Audenasa konpentsatzeko formularen erabilitako “C” koefizientearen balio-aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Joan den 2021eko martxoaren 31n, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak agerraldia egin zuen Parlamentuan, AP-15 autobideko deskontu-politikarengatik Audenasari eman beharreko konpentsazioaren berri emateko, bai eta Gobernuak 2021eko otsailaren 24ko erabakiak hartzeko arrazoi berri emateko ere. Erabaki horien bidez, Kontu-hartzailatza Nagusiaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arteko desadostasuna ebatzi zen eta Víctor Torres Ruizek, zuzendari nagusia den aldetik eta Audenasaren izenean,

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa baietsi zen (foru aginduaren bidez, 2020ko azaroko faktura ordaintzea agindu zen).

Agerraldian zehar kontseilariak behin baino gehiagotan adierazi zuen “C” kaptazio-koefizientearen balioa aplikatuta egindako aldaketa, 2020. urterako egina (Nafarroako autobidearen lehenengo fasea eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko emakida kontratua aldatzeko eta aldaketa horri lotutako beste konpromiso batzuk hartzeko erabakiaren 1-5 eta 1-6 eranskinean jasotako formularen ageri da –erabaki hori 2000ko otsailaren 28an sinatu zen, AP-15 autobideko deskontuak konpentsatzeko–, bai eta 2007ko ekainaren 18an Nafarroako Gobernuaren erabakiz egindako aldaketan ere), aipatutako formularen aplikazio zorrotzari zor zitzaiola eta halaxe zegoela jasota aplikatzekoak diren hitzarmenetan.

Hori ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

Audenasarekin sinatutako hitzarmen ugarietako zeinetan edo zer emakida-kontratutan ezartzen da AP-15 autobideko trafikoa, nabarmenki edo ez, murriztu den kasuetan, AP-15 autobidean deskontuak konpentsatzeko adostutako formularen “C” kaptazio-koefizienteak “1” balioa hartu behar zuela 2014tik aurrera, eta ez “1,65” balioa, 2007ko hitzarmenean ezarri zen bezala?

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, zahar-etxeetako zaintzari eta erizaintzako osasun-laguntzari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, zahar-etxeetako zaintzari eta erizaintzako osasun-laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan ikusi dugu Osasun Departamentuak iragarri duela erizaintzako profesional asko kontratatuko dituela hurrengo hilabeteotan.

Horrek berekin ekar lezake zahar-etxeek hala-ko profesional gutxiago izatea kontratatzeko, ordezkapenak egiteko eta been plantillak indartzeko.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariari:

Osasun Departamentuak nola bermatuko du zaintza eta erizaintzako osasun-laguntza, baldin eta baliabide berekien bidez bete ezin badira?

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen deialdiei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera egiten dio Landa Garapeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan daude Nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek instalazioak jartzeko dirulaguntzen 2019ko eta 2020ko deialdiak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, sektore-eremuen gaineko eskumenari buruzkoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuetan.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, sektore-eremuen gaineko eskumenari buruzkoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Azken batean, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eskumenekoa al da sektore-eremuen gaineko eskumena, hala nola etxebizitzaren edo osasunaren gainekoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuan?

Departamentua erabakietan parte hartzen al du? Horrela bada, nola hartzen du parte beste departamentu batzuen erabakietan hartzaileak migratzaileak direnean?

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari eta horien edukiari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari eta horien edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkeztea aurreikusten al du?

• Zein da proiektu horien edukia?

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturako eraikin berria egiteari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturako eraikin berria egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak 8.700.477 euroko inbertsioa baimendu zuen 2019ko urtarrilean, Nafarroako Ospitalegunean eraikin berri bat eraikitzeko, bertan ospitaleguneko laborategi bateratua jar dadin. Une hartan aurreikusi zen eraikina 2021eko bigarren seihilekoan bukatuta egotea.

Hala balitz, Navarrabiomed-Ikerketa Biomedikoaren Zentroa, zeina 2011n inauguratu baitzen,

ikerketarako soilik izanen litzateke, hori izan zela-ko Europar Batasunaren Feder funtsen bidez % 50 kofinantzatzeko jarri zen baldintza. Hala ez balitz, Nafarroako Gobernuak itzuli egin beharko luke jasotako finantziakzioa.

Bere garaian, "Nafarroako Ospitaleguneko Laborategi Bateratuaren 1. fasea (analisi klinikoak, hematologia eta larrialdiak) eraikitzeko eta laborategi berriarekin lotzearen galeria handitzeko obrak" lizitatzeko iragarkia argitaratu zen, 10.939.560,16 euroko balio zenbatetsiarekin, BEZa kanpo, luzapen eta aukera guztiak barne. Eskaintzak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 18an bukatu zen.

Nafarroako Kontratazioaren Atarian jasota ageri den informazioaren arabera, obra esleitu gabe gelditu zen.

– Osasun Departamentuak zer prozesu jarraitu du orain arte legegintzaldi honetan? Zertan da proiektua?

– Osasun Departamentuak zer asmo dauka egin beharreko obraren lizitazioari eta epeei dago-kienez?

– Osasun Departamentuak gogoan al darabil NavarraBiomed eraikina eraikitzeko jasotako europar funtsak itzuli behar izatearen aukera?

– Gogoan hartu al du obra hori europar funtsekin finantzatzeko aukera? Hala baldin bada, zergatik ez da sartu REACT proiektuetan?

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru

jurista aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea 2021eko apirilaren 29ko 17:30a arte luzatzea (10-21/ELC-00001).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts –lehendabizikoa eta hirugarrena txanda irekikoak, eta bigarrena igoera txandakoa– oposizio bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia erakunde horretako lehendakariaren 2021eko otsailaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukatutik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean nahiz Nafarroako Kontuen Ganberako iragarkien ohelean eta web orrian argitaratzea.

Izangai bazterturik egon ez denez, bidezkoa da zerrenda hau behin betikotzat onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek EBATZIDU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiko onartu eta

baztertuen behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda:

Txanda irekia:

a) *Onartuak:*

Alcuaz Andueza, Xabier

Alvarez Paez, Abel

Apezteguía Calle, Gorka

Asio Goicoechea, Fabián

Ayesta Zardoya, Edurne

Bergera Lezáun, María Victoria

Casimiro Fernández, Raúl

Elia García, Silvia

Elizalde Insausti, María José

Elizondo Leiva, Montserrat

Eslava Satrustegui, María Eugenia

Ezcurra Fernández, Pablo

Ezquerro Landivar, Jaime

Fernández Martínez, Adrián
García Izu, Borja
García Rodríguez, Gabriel
Garmendía Ariztimuño, María Liernia
Garro Flamarique, Alberto Juan
González de Castejón Hermoso, María Jesús
Jalle Alaiza, Carla
Landivar Roque, Irantzu
Larrea Oiartzun, Asier
Mariñelarena Arrondo, Jaime
Mendia Azpiroz, Eva Virginia
Mitxaus Barberena, Ainhoa
Montalvo Arenzana, Inmaculada
Montilla Colás, Julen
Moreno González, Itziar
Ocariz Ripa, Idoia
Ordóñez Múgica, Ioana
Pinillos Salvador, María Teresa
Redal García, María Pilar
Rípodas Beroiz, Beñat

Royo Baquedano, Cristina
Ruiz Remírez, Carlos
Salinas Munarriz, Andrea
Sánchez Arteaga, María Nieves
Serrano Arana, Aimar
Sola Núñez, Myriam
Tejedor Zozaya, Mateo
Villanueva Guillén, Lucía
Zabalza Rípodas, José Miguel

b) Baztertuak:

Inor ez.

Igoera txanda:

Inor ez.

Bigarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren iragarkien oholean eta web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 13an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2021 Foru Lege-dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez ezartzen baita denbora-egozpena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteengatik jasotako prestazioen erregularizazioari dagokiona, eta aldatzen baita ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bategina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak 3/2021 Foru Lege-dekretua onetsi du, martxoaren 31koa. Horren bidez, ezartzen da denbora-egozpena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteengatik jasotako prestazioen erregularizazioari dagokiona, eta aldatzen da ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bategina. Aipatu foru lege-dekretua 2021eko apirilaren 12ko 80. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2021eko apirilaren 12ko Osoko Bilkuran eginen direla martxoaren 31ko 3/2021 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa (10-21/DLF-00003).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

3/2021 Foru Lege-dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez ezartzen baita denbora-egozpena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteengatik jasotako prestazioen erregularizazioari dagokiona, eta aldatzen baita ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bategina.

Koronabirusak eragindako krisi ekonomikoak, batetik, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko presako neurri bereziei buruzkoak, bestetik, hainbat eta hainbat langile enplegu-erregulazioko espedientearen egoeran deklaratzeari ekarri dute, Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuaren (EEPZ-SEPE) kolapsoa eragiteraino. Eskaeren kopurua hain handia izanenez, akatsak gertatu dira prestazioen kudeaketan; horren ondorioz, langile ugari zegozkienak baino prestazio handiagoak jaso dituzte 2020an, eta diru hori itzuli behar diote aipatutako zerbitzuari. Kasu batzuetan, itzulketa 2020an egin da, baina beste batzuetan 2021ean egiten da. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru araudian aurreikusirik dago honelako kasuetan, hau da, ordainketaren egileari aurreko zergaldietan jasotako lan-etekinak itzuli behar zaizkionean, zergadunak bi aukera dituela: itzulketak eragindako errenta negatiboaren aitorpena egitea itzulketa egiten den zergaldiko autoliquidazioan, edo bidegabeko errenta jaso zen zergaldiko autoliquidazioan egozte. Foru arauak ezartzen due-

nez, halaber, aukera hori eginen da itzulketa egiten den zergaldiko aitortzean. Horrek esan nahi du aldi baterako enplegu-erregulazioen prestazioak 2021ean itzultzen direnean, 2020ko zergaren autolikidazioa aurkeztu aurretik itzultzen direnean ere, zergadunak jasotako zenbateko osoa sartu beharko duela 2020ko errentaren autolikidazioan (eta horren arabera tributatu), eta 2022. urtera arte itxoin beharko duela, errenta negatiboa 2021eko autolikidazioan sartzeko edo, hala nahi badu, 2020ko autolikidazioaren zuzenketa eskatzeko. Aukera hori egiteko prozedura errazagoa izan dadin, eta aldi baterako enplegu-erregulazio-ko espedienteek ukitutako langile askok 2020ko zergaldian ez dezaten tributatu behar izan Estatu-ko Enplegu Zerbitzu Publikoari itzuli behar dizkioten edo dagoeneko itzuli dizkioten diru-sarrerengatik, foru lege-dekretu honen bidez ezartzen da itzuli beharreko diru kopuruen egozpena egiten ahalko dela 2021eko apirilaren 12an hasi eta itzulketa egiten den ekitaldiari dagokion aitortzearen aurkezteko epea amaitu arteko epean. Horrela, aurreratu egiten da aukeraz baliatzeko unea, zerga administrazioari hala adierazten dioten langileek ABEEE-en itzulketak eragindako errenta negatiboak egozten ahal ditzaten 2020ko autolikidazioan, 2022an zuzenketa eskatzeko zain egon gabe. Foru lege-dekretuaren tresna erabiltzeko dagoen premia hain presakoa eta ohiz kanpokoa izateko arrazoia da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2020ko kanpaina hastear dela, 2021eko apirilaren 12an zehazki, eta, beraz, ez dagoela denborarik lege aldaketa hori foru lege baten tramitaziorako ohiko prozedura erabiliz egiteko.

Azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretuak presako neurriak ezartzen ditu, enpresen kaudimenari eta sektore energetikoari laguntzeko, eta zerga arloan, enpresek eta autonomoek finantzaketa eskuratzea sustatzeko eta likidezian egon daitezkeen tentsioak kaudimen arazo bihur ez daitezzen; ildo horretan, arauan aurreikusten da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako abal publiko baten bidezko mailegua duten zordunek eskatzen ahalko dutela epemuga luzatzea, abal publikoaren epe bererako luzapenarekin.

Bestalde, COVID-19aren pandemiari erantzuteko, enpresen kaudimenari laguntzeko ohiz kanpoko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuan ezartzen da abal publikoarekin emandako maileguen epemuga luzatzeko aukera, azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz egindakoaz haratago.

Neurri horren osagarri, foru lege-dekretu honek ezartzen du egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien mailakako kuotatik salbuetsirik egonen direla abal publikoa jaso duten finantzaketa eragiketen epemugen luzapena formalizatzeko eskriturak, berme erreal inskribagarria dagoenean.

Foru lege-dekretuak bi artikulua eta bi azken xedapen ditu.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, behar-beharrezkoa baita aipatu neurriak berehala hartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko martxoaren hogeita hamaikan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Aldi baterako enplegu erregulazio-ko espedienteengatik (ABEEE) jasotako bidegabeko prestazioak direla-eta erregularizatutako zenbatekoen denbora-egozpena.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 78.5 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat, subjektu pasiboak Estatu-ko Enplegu Publikoaren Zerbitzuari (EEPZ-SEPE) itzuli behar badizkio aldi baterako enplegu-erregulazio-ko espedienteengatik datozen lan etekinak, 2020an jasotakoak, itzulketa horiek egotziko zaizkio itzulketa egiten den zergaldiari, non ez den erabakitzen 2020ko zergaldiari egoztea. Bi kasuetan, aipatu itzulketek lan etekinak gutxituko dituzte.

Aurreko paragrafoan aipatzen den aukeraren berri eman beharko zaio Administrazioari 2021eko apirilaren 12tik hasi eta itzulketa egiten den ekitaldiari dagokion aitortzearen aurkezteko epea bukatu arteko epean.

2. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bateginaren aldaketa.

Paragrafo bat gehitzen zaio Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 35.I.B.26 artikuluari (apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina), testu hau izanen duena:

“COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresen kaudimenari laguntzeko aparteko neurriei

buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitakoaren haritik, abal publikoa jaso duten finantzaketa eragiketen epemugaren luzapena formalizatzeko eskriturak, berme erreal inskribagarria dagoenean, salbuetsirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien mailakako kuantatik”.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru Lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, baliozkotzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuz-

tuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis. 2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra, bertan aurreikusten diren ondorioekin.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado